



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica



OSTALARITZA MAHAIA / MESA DE HOSTELERIA

2021eko irailaren 16a

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoeraren analisia.
2. Gai hauek jorratzen dituen informazioa:
 - a) Getxo Bono - Ostalaritza 2021: kanpainari buruzko datuak.
 - b) Bizkaiko Ostalaritzako Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatutako doako prestakuntza-ikastaroen egutegia.
 - c) Covid-aren informatzaileak: egindako azterlanaren emaitzak.
 - d) Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzak.
 - e) "Getxo Bihotzetik" proiektua.
 - f) Tokiko kontsumoarekiko sentsibilizazio eta sustapen kanpaina.
 - g) GetxON: marka berritzea.
 - h) Saltokien-bilatzailea berritzea.
 - i) Eusko Jaurlaritzaren laguntza berriak Pubs eta gaueko aisialdiko diskotekentzat.
 - j) Kontrataziorako 2021erako laguntzak.
 - k) Batuz Sistema.
 - l) Mahaiaren ordezkarietan lanpostu hutsak betetzea.
3. Ideai eta proposamen berriak.
4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.
5. Hurrengo urratsak.

BATZARKIDEAK: (77%)

DEITUAK	BATZARKIDEAK	ABSENTZIAK	
		Justifikatutakoak	Justifikatugabeak
Algorta-Andra Mariko jatetxeetako ordezkaria	Monica César (NIKKOU)	X	
Algorta-Andra Mariko taberna eta jatetxeetako ordezkaria	Jorge Alonso (TXINUK)	X	
Ereaga, Portu Zahar, Kirol Portu eta Neguriko jatetxeetako ordezkaria	Kotska Mandaluniz (ASADOR BORDA)	X	
Areetako jatetxeen ordezkaria	María del Fresno (La KAZUELA)		X



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Areetako taberna eta kafetegietako ordezkaria	Ana García (PIANAMUL)	X		
Erromoko tabernen ordezkaria	Per Urriolabeitia (LA MONA)			X
Getxo Enpresa	Desiree Yeste (OKU LOUNGE)	X		
Asohge	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Moran	X		X
Getxoko Udala – Sustapen Ekonomikoko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Sara de la Fuente	X		

EDUKIAK:

1. Batzarkideei agurra eta sektorearen egungo egoeraren analisia.

Bilerako parte-hartzaileak agurtu eta aurkeztu dira, eta, horren ondoren, taldeko eztabaida txiki bat egin da, udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen ikuspegiak aztertzeko. Ildo horretan, parte-hartzaileek egoera honen berri eman dute:

Sektorea Labiko bileraren ostean helaraziko diren berrien zain dago, ordutegi-eta edukiera-murrizketak pixkanaka arindu ahal daitezen, bat-bateko jendepilaketarik ez izateko eta egoerak berriro okerrera egin ez dezan. Oro har, denek diote covid-aren aurretik bezala fakturatzeko, gehiago inbertitu behar dela (langileak, ekipamendua...). Hitzez hitz aipatu dutenez, zutik ezin kontsumitzeak egiten die kalte handiena, baina terrazako kontsumoari esker egin dezakete aurrera.

Halaber, zenbait negoziok ez dute edukieraren mugak betetzen, eta terrazak ez dira behar bezala erabiltzen. Horren ondorioz, herritarren kexa asko daude sortzen den zaragatik eta espaloiak okupatzeagatik, batez ere Algortako zenbait gunetan; izan ere, arratsalde-gau aldera, asteko egun jakin batzuetan egoerak gainezka egiten du, nahas-mahasa nagusi da. Udaltzaingoak malgutasunez jokatu izana eskertu dute, nahiz eta iritzi dioten esku hartu egin beharko zutela arauak behin eta berriro betetzen ez dutenekin, azken horien jokabide desegokiak sektore guztira erraz zabaltzen baitira.

Alde horretatik, kontsumorako ohiturak aldatu egin direla ikusi dute: bezeroek nahiago dute terrazan kontsumitu, gazteek kontsumorako beren ordutegiak aurreratu dituzte eta auzoko beste eremu batzuetara joaten hasi dira.

Bestalde, kezkati daude abenduaren 31tik aurrera covid-aren ondorioz jarritako terrazekin gertatu daitekeenarekin, terraza horiek kentzeko agindua eman baitute. Beren ustez, bidezkoena izango zen terraza horiek ez kentzea



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

barran kontsumitu ezin den bitartean eta terrazak pixkanaka kentzea, zehazten diren edukieren arabera.

Terrazen gaitan jarraibide orokorrak ezartzea sektorerako ez dela mesedegarria adierazi dute; hala, mugak eremuen arabera ezartzeko proposatu dute, egoeraren eta horien erantzunaren arabera. Aipatu dute eremu batzuetan (bezero-klaseengatik, espazio zabalak dituztelako...) ez dutela arazorik eta/edo kezarik sortzen, eta, beraz, terrazekin jarraitu ahalko zela.

Hori guztia terrazen ordenantza berrian (beharrezkoa dela azpimarratu dute) jaso beharko zela uste dute, eta, hortaz, COVID-19aren ondorioz jarritako terrazekin jarraitu beharko zela, ordenantza berria onartu artean.

Terrazetarako baimenak emateko izandako atzerapenekin ere kexu agertu dira (establezimendu batzuek ez dute oraindik ebazpenik jaso, OKUK, adibidez).

Terrazek sortutako kexei dagokienez, eta kontu horren harira Kontraste Mahai Politikoko talde politikoek adierazitako kezka aintzat hartuta, datu zehatzak izatea eskatu dute.

2. Honako gai hauek jorratzen dituen informazioa:

a) GETXO BONO - OSTALARITZA 2021: KANPAINARI BURUZKO DATUAK.

Getxo Bonorekin gertatzen ez den bezala (Merkataritza eta Zerbitzuak), Getxo Bono Ostalaritzaren datuak ez dira onak. 2021/09/06an bildutako datuen berri eman zaio mahaiari, bai eta sektoreka trukaturako bonuen kopuruaren berri ere (ikus xehetasunak 4-5-6 diapositibetan). Bereziki azpimarratzekoa da atxikitako pertsonen % 18k oraindik ez dutela bonurik trukatu.

Oro har, ostalariek erabilera-irizpide bera ez betetzeagatik (bakoitzak bere estrategia partikularrari jarraitu dio, eta batzuek testuinguru jakin batzuetan bakarrik eskaintzen dute bonua), ikusi da herritarrek ez dakitela non edo nola erosi bonuak edo kanpainak aurrera jarraitzen duen ala amaitu den.

Bonua zatikatzea da parte-hartzaileek funtzionamenduari lotuta ikusten duten beste arazoetako bat. Trukatzeke nekeza izateaz gain, bezeroak bonurik ez lortzeko eta dirua galtzeko kezka sortzen die.

Parte-hartzaileek eskatu dute establezimendu bakoitzeko trukaturako bonu-kopurua emateko, egiaztatze aldera.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Bestalde, ez daude pozik Getxo Enpresak ematen dien arretarekin; beren ustez, elkarteko kide diren establezimenduek tratatu hobea dute elkarteko kide ez direnen aldean –parte-hartzaileetako askok adierazi dute truke-bonuak itzuli zaizkiela hainbat arrazoiengatik –; gainera, ez da erraza bonuari tiket berri bat esleitzea – ez dator bat benetako kontsumoarekin–.

Egoera hori ikusita, teknikoki publizitatea eten egin da sektorearekin erabakitzeke nola egin kanpainaren gainerako zatia, amaiera arrakastatsua izan dezan. Mahaiari erakutsiko zaio bonu erabilgarrien soberakina (ikus 7. diapositibako xehetasuna). Bonurik trukatu ez duten zazpi establezimenduei gehituta, bonuak agortu dituzten establezimenduen artean banatu beharreko bonu-kopuru handia izan dezakegu. Horretarako, teknikoki hau egitea proposatu da:

1. Banan-banako bisitak egitea ostalaritzan, eta kanpainan jarraitu nahi duten jakitea. Baja emanez gero, bonu horiek berreskuratzea.
2. Gainerako bonu guztiak banatzea.
3. Beste komunikazio-kanpaina bat egitea, eta kanpaina horretan bonuak zer establezimenduk dituzten adieraziko da.

Fase honetan establezimendu gehiago sartzeko aukera kontsultatu da; teknikariek deialdiaren oinarriak berrikusiko dituzte aukera hori baloratu ahal izateko.

Parte-hartzaile guztiek adierazi dute GetxoBono Ostalaritzarekin jarraitu behar dela hurrengo ekitaldian. Dena den, datozen edizioei begira, zenbait alderdi hobetu behar direla esan dute:

- Bonuetako baten zenbatekoa murriztea, tabernei eta kafetegiei mesede egiteko.
- Bonua erabiltzeko araudi bateratua sortzea (osorik kontsumitzea eta ez zatikatzea).
- Ostalaritzak ez eskaintzea bonua; aitzitik, bezeroak erosi dezala.
- Bi denboralditan oinarritzea: otsailtik Aste Santua arte, eta irailaren bigarren hamabostalditik azaroaren amaiera arte.
- Bonuak iraungitze-epea izatea.
- Pertsona bakoitzak gehienez hamar bonu erosteko aukera izatea.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

b) BIZKAIKO OSTALARITZAKO ELKARTEAK EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAREKIN ANTOLATUTAKO DOAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN EGUTEGIA.

Parte-hartzaileei jakinarazi zaie online bidezko doako prestakuntza-ikastaro gehiago daudela. Hobetzen eta hazten jarraitzeko interesgarriak dira kudeatzaileentzat nahiz plantillarentzat (ikus 8-9 diapositibak).

Bereziki aipatzen da prestakuntza horiek guztiak **Etika Kodearen** programaren barruko prestakuntzat hartzen direla, eta, hainbestez, **emaitzetan puntuatzen dutela urte amaieran erdietsitako beharkizunei dagokienez**. Horregatik, programa honetan parte hartzen arituz gero, egindako ikastaroen berri ematea hagitz garrantzitsua dela jakinarazten da.

Bestalde, ostalaritza-sektorerako ikastaro espezifikoaren egutegiaren berri eman da, zehatz (ikus 10. diapositiba).

c) COVID-AREN INFORMATZAILEAK: EGINDAKO AZTERLANAREN EMAITZAK.

Gogora ekarri nahi da aurten pertsona batzuk kontratu direla ostalaritzako establezimenduak bisitatzeko eta herritarrekin bitartekaritza-lana egiteko. Egindako azterlanaren emaitza nagusien berri eman zaio mahaiari: pilatutako emaitzak, ostalaritzak jaso izan dituen eskaerak –teknikoki konpondu direnak– . Halaber, atera diren ondorioak (teknikoki kezagarritzat jotzen direnak), establezimenduek arauak ez betetzearen ehuneko handiari eta proposatutako ekintza-planari dagokienez, eta proposatutako ekintza-plana (ikus 11-12 diapositibetako xehetasunak).

Udaleko teknikarien ustez, garrantzitsua da informazio-kanpaina bat egitea eta ostalaritzari nahitaezko informazio-euskarriak helaraztea. Parte-hartzaileek oso ongi hartu dute proposamen hori.

d) COVID-19ARI AURRE EGITEKO APARTEKO LAGUNTZAK:

Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzei dagokienez, atxikimenduen lehen epealditik (05/29 - 06/14) atera diren datuak honako hauek izan ziren:

- **257 eskabide:** 248 laguntza eman ziren, guztira 324.680 euro; 6 eskabide ukatu ziren, eta 3 enpresak atzera egin zuten.
- Enpresa onuradunen profila:
 - 173 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **sektorea ixteagatik**.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

- 75 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **udalerrriaren itxitura perimetralagatik.**
- Enpresen **sektoreen** arabera:
 - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
 - **Turismoaren arloko zerbitzuen enpresak: 27 (% 10,9)**
 - Ostatuak: 5 (% 2)
 - Taxiak: 43 (% 17,3)
- Enpresen forma juridikoaren arabera:
 - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
 - Ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko beste elkarte batzuk: 29 (% 11,7)
 - Pertsona juridikoak: 75 (30,2%)

Bigarren epealdian (05/11 – 06/30), **hirugarrenean (gaur egungoan, 09/01 – 09/15)** legez, ez da eskabiderik jaso. Hala ere, laguntza hau urtea amaitu arte egongo da indarrean, gerta daitezkeen egitateengatik

Cuadro informativo:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS_COVID_2021/Web_Ficha_Resumen_Ayudas_Covid_2021_eus.pdf

Parte-hartzaileek adierazi dute ostalariek ez dutela laguntza eskatu administrazioekiko betebeharreran egunean ez zeudelako. Laguntza-eskaerak izapidetzeko aholkularitza batzuk erakutsitako aurretiko jarrera eskasa ere adierazi dute. Kontu hau beste mahai batzuetan ere aipatu da.

e) “GETXO BIHOTZETIK” PROIEKTUA.

Getxo bihotzetik proiektua aipatzen da, "GetxoEkinez!" en onartutako ezohiko proiektuetako bat legez. Proiektu horrek mahai sektorialen eskaera batzuei erantzuten die, eta helburu nagusi hauek ditu:

- ✓ Ostatu-gauak areagotzea.
- ✓ MICE (Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions) zerbitzuak eta baliabideak Bilbo Handiko eta Bizkaiko enpresei ezagutaraztea.
- ✓ Getxora estatuko eta nazioarteko kalitate-talde berriak erakartzea.

Horretarako, lantalde bat sortu zen, non zerbitzuen hornitzaileak eta ekimenak garatzeko arduradunak sektore berekoak baitira, Udalaren laguntzarekin. Talde eragilea Mice Design-eko Virginia Pérez eta Go Basquing-eko Iñigo García Valenzuela dira.

Ondoko hauek dira jarduera-ildo nagusiak:



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

1.- *Nola proiektatuko garen eta zer erakarri nahi dugun definitzea*, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko diguten "istorioak" sortuz. Getxoko mahai sektorialekin eta enpresa-sare osoarekin parte hartuz eta lan eginez.

2.- *Beren negozio-eredua edota zerbitzu-eredua berrikusteko interesa duten enpresei laguntzea*, hobekuntza-arloak definituz eta produktu eta esperientzia berriak zehaztuz, edota egun badaudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikatzeko eta merkaturatzeko kanpaina*, "istorio", zerbitzu edota produktu horiek zabaltze aldera.

4.- *Alderantziko merkaturatze-jardunaldiak antolatzea*: Fam-Trip (familiarizazio-bidaia) presentzialak (5) eta birtualak (10), eskaintza enpresa eta eragile interesgarriari ezagutarazteko, erosi edota merkaturatu ahal izateko.

Adibide gisa, goiz oso batean udalerrian zehar hainbat jarduera antolatzen dira beraientzat, enpresa horiek esperientziak bertatik bertara bizi ditzaten eta eskaintza horren atzean dauden enpresak ezagutu ditzaten loturak ezarri ahal izateko. Gakoa bereizketa da, hots, jarduera edo istorio bakar eta desberdinak eskaini ahal izatea.

Orain arte, maiatzetik ekainera, burutu diren ekintzak eta irailetik abendura bitartean egingo direnak azaltzen dira (ikus xehetasunak 15-16-17-18-19 diapositibetan). Argigarri gisa, bideo hau ematen da:

<https://drive.google.com/file/d/1oOYHWL22F94Yk3tN6gL0mSb92IagYcr3/view?usp=sharing>

Enpresa guztiek parte har dezakete proiektu honetan, eta bat egin dezakete honako helbide elektronikoa honetara mezu bat bidaliz: visitgetxo@getxo.eus

f) TOKIKO KONTSUMOAREKIKO SENTSIBILIZAZIO ETA SUSTAPEN KANPAINA .

Kanpaina horren leloa "Garrantzitsuena beti eskura" da, eta Enpresen Kontsulta Foroak eskatuta sortu zen. Kanpaina horren helburu nagusia udalerriko establezimenduen kontsumoa sustatzea da. Kanpaina honek bi merkaturatze- edo indartze-txanda zituen: bata maiatza-ekaina bitartean eta, hurrengoa, urria-azaroa bitartean. Hainbestez, jakinarazten zaie ezen urritik aurrera publizitate-euskarriak berriro helaraziko zaizkiela, partekatu ahal izateko.

Ildo horri jarraikiz, eskuratu diren datuen emaitzak erakusten zaizkie batzarkideei (ikus xehetasuna 20-21. diapositibetan). Horrezaz gainera,



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

gauzatutako intzidentzia eskualde mailakoa zen: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorniz eta Urduliz.

g) GETXON: MARKA BERRITZEA.

Marka hori bere garaian tokiko saltokiak multzokatzeko sortu zen arren, gaur egun zaharkitua eta geldirik dago. Horregatik, sektore mahaien aurreko bileretan eskatu moduan, bigarren aukera bat eskaintzea eta zentzu zabalagoa emateko berriz ere diseinatzea proposatu zen. Helburua udalerriko enpresa parke guztia bertan biltzea (hau da, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, aisialdia, eta abar) eta sektoreen arteko konexioa indartzea da, hala, jende gehiagorengana heltzeko.

Beraz, proiektu horretan lanean hasiko gara, eta, horretarako Maria Goñi diseinatzaile grafiko getxotarra kontratatuko da. Hala ere, sektore bakoitzak bere ekarpenak egin beharko ditu guztientzako adierazgarria izan dadin, eta, horretarako, sektore guztiekin eta aipatutako profesionalarekin bilera bat egingo da. Ideia nagusia hiruhileko honetan gauzatzea eta saltokien bilatzailea berritzeko proiektuarekin lotzea da.

h) SALTOKIEN-BILATZAILEA BERRITZEA.

GetxON marka, era berean, udalaren establezimenduen bilatzailearen birdiseinuari lotuta egongo da, zeina mugatua eta estatikoa baita. Ildo horretan, asmoa da informatika-arloarekin barne-lana egitea, kalitateko eta diseinuko edukiei dagokienez barne-tresna hobetzeko, bilatzailearen onlineko posizionamendu ona lortu ahal izateko. Horretarako, Inboost enpresa kontratatuko da, udalerriko eskaintza eta eskaria sakon aztertuko dituen (ikus xehetasunak 23-24 diapositibetan), eta establezimenduei jakinaraziko zaie informazio hori jasotzen hasi direla.

i) DINAMIZAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK.

Laguntza-lerro hauen emakiden ondoriozko proiektuak eta berauen esleipendunak azaldu dira (ikus xehetasunak 25-26-27 diapositibetan); gai honi dagokionez, sektorearentzat bereziki interesgarriak dira 1., 5. eta 6. lerroak –elkarteetarako– eta 3. eta 4. lerroak –establezimenduetarako–; aukera hau baliatuz, datorren urterako laguntzak eskatzera animatzen zaituztegu.

Halaber, lerro horien eskatzaile guztiei gogorarazten zaie ez dagoela urte amaierara arte itxaron beharrik laguntza justifikatzeko. Izan ere, jarduera amaitzen denean egitea komeni da, zeren eta horrela diru-laguntzaren gainerako zatia (% 25) kobratzen baita.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

j) EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZA BERRIAK PUBS ETA GAUEKO AISIALDIKO DISKOTEKENTZAT.

Parte-hartzaileei erakutsi zaie Eusko Jaurlaritzak 3. eta 4. taldeetarako laguntzen agindu berriaren iragarkia (ikus xehetasunak 28. diapositiban), eta agindu horren baldintza nagusiak aipatu dira.

Jakinarazi da, kaltetutako establezimendu guztietara mezu elektronikoak bidaltzeaz gain, III. eta IV. taldeetako lizentzien ordezkarietara telefonoz deitu zaiela.

k) KONTRATAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK:

Era berean, Mahaiari jakinarazi zaio Lanbidek urtero ateratzen dituela laguntza horiek, interesa duten udalei bi jarduera-ildotara bideratuko den diru-kopuru bat emateko aldera:

- Udaletan langile laguntzaileak kontratatzea.
- Enpresei zuzendutako deialdi publiko bat abiaraztea, haien kontratuak diruz lagundu ahal izateko. Aurtengo deialdiak **2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako kontratuak** estaliko ditu.

Gaur egun, Udala Lanbideren ebazpenaren zain dago. Nolanahi ere, 2020ko laguntzaren baldintzen laburpen-taula ematen da, 2021eko deialdian ere berori errepikatuko baita:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha_Resumen_Ayudas_Contratacion_2020_eus.pdf

l) BATUZ SISTEMA.

Berrikuntza gisa, jakinarazi da Foru Ogasunak bere nahitaezko ezarpen-data **2024ko urtarrilaren 1era** luzatu duela. Hala ere, egokitzapena data hori baino lehen egiten duten enpresa guztiek oraindik zehaztu gabeko zerga-kenkariak jasoko dituzte Foru Ogasunaren aldetik.

Horrezaz gainera, Enpresen Kontsulta Foroan landutako eskaeretako bat, atzo politikariei Kontraste Mahaian helarazi zitzaiena, enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat abiarazteko aukera zen, trantsizio horrek sektoreei ekarriko dizkien inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko. Udal teknikariak horren inguruan hartuko den erabakiaren zain daude.

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko da, bai eta ondorik banakako aholkularitza jasotzeko aukera ere. Hurrengo saioak honako hauek izango dira:



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

- 09/29; 13.30etatik 14.30etara
- 11/09; 13.30etatik 14.30etara

Izen-emateak webgune honetan jasoko dira: www.getxo.eus (egun bat lehenago, gutxienez)

Batuz sistemari buruzko informazio gehiago hemen: <https://www.batuz.eus/eu/hasiera>

- Homologatutako softwareen zerrenda: <https://www.batuz.eus/eu/software-erregistroa>
- Borondatez ezartzeko pizgarrien iragarkia: <http://ow.ly/AB5I50GjXT3>

Garrantzitsua da aipatzea, halaber, aukeratutako softwareak ez duela "b kontabilitatea", isun larriak jarriko baitzaizkie instalatuta duten guztiei, nahiz eta ez erabili.

m) MAHAIAREN ORDEZKARITZETAN LANPOSTU HUTSAK BETETZEA.

Mahai honetako ordezkarietan izandako aldaketen berri eman zaie parte-hartzaileei (ikus 30. diapositiba), baita bete gabe dauden lanpostu hutsen berri ere, hautagaitza-proposamenak ahalik eta lasterren egin ditzaten: jatetxeak "Romon" eta "Kirol Portuan/Portu Zaharrea/Ereaga".

3. Ideia eta proposamen berriak.

Aipatu da ezen une honetan Udala eta administrazio publikoak 2022rako aurrekontuak prestatzen ari direla, eta urtearen hasieran itxi ohi direla. Joan den irailaren 13an, Kontraste Politikorako Mahaian, urte hasierako mahaietatik atera ziren sektoreen eskaera eta behar askoren berri eman zen.

Nolanahi ere, sektoreko enpresei eskatzen zaie sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu beharreko proposamen edo gairen bat dagoen baloratu dezatela, horren berri emateko unea baita. **Epemuga: urriaren 30a baino lehen.** Horretarako, ondorengo helbide elektronikora bidali ahalko dira ekarpenak

enpresenaholkuforoa@getxo.eus



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Mahai honetan aipatutako proposamenak argiak dira:

- COVID-19aren ondorioz jarritako terrazen eremua handitzeko erabakiarekin jarraitzea, edukiera-mugei lotutako kontsumoko murrizketek iraun artean.
- Terrazen ordenantzen edukian aldaketak. Hala, terraza berriak arautu eta modu iraunkorren jarri ahalko dira, baldin eta bide publikoa erabiltzeko eskubidea urratzen ez badute.
- 2022rako GetxoBono berria.

4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa: urriaren 5ean. Foro horretan, Sektoreko ordezkariak lehenetsia emango diete mahai sektorialetatik jasotzen diren proposamenei Merkataritza Mahaiaren proposamenak beren ordezkariak babestuko dituzte: Jorge Alonso (ASOGHE), Desiree Yeste (Getxo Enpresa) eta Jon Moran (Romo Bizirik).

OSTALARITZA MAHAIAREN AKORDIOAK (2021/09/16):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Terrazei buruz herritarrek dituzten kexen kopurua mahaiarekin partekatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Ostalaritza Bonuen jarraipen intentsiborako kanpaina, horien kontsumoa bermatzeko	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Establezimendu bakoitzak trukaturako bonuen kopurua establezimenduei ematea	Zerbitzuko teknikariak	Urriaren 11tik aurrera
5. Sektoreari hautagai berriak proposatzea hutsik dauden zonako ordezkarietarako	Ostalaritzako establezimenduen ordezkariak	Bileratik aurrera
6. Sektorearen egoera hobetzeko eta/edo sektorearen kokapen hobea lortzeko proposamenak igortzea, 2022an gauzatzeko	Sektoreko enpresak	Urriaren 30a baino lehen